

Gure arrantzaleak eta frantzi'ko jaurlaritza


Kantauri-ltxasoan arrantzaleen artean sortu-berri diren iskamilletazzerbait entzunik egongo zera noski. Badirudi ba itxasoak aski barrutizabala, nai dun guztiak bertan lan egin aal izateko! Baña es-tutu ta murriztu-bide dute zabal-tsun ori gizakumeen geiegikeriek, «bolantak» esan oi zaien tresna oien bidez. «Bolanta» zer den? Kortxoan laguntzaz itxas gañean gelditzen denlokarri batetik itxas azpiruntz zintzilika dagoen sarea.

Ta «bolanta» oiek orrenbesteko asarrea sortzeko aña garrantzi ba-duten? Ez, luzean larogei metro-koa ba'lire. Bai ordea itxas gañe-kolokarria, eta, ondorioz, lokarri ortatik zintzilika dagoen sarea ere, bi kilometro t'erdikoak ba'dire.

Lendabizi, sareek, -arraiak zer klasekoak diren ezagutzeko gaita-sunik ez dutelarik-, arrai mota guz-tiak arrapatzen dituztelako, orre-laitxasoko bizitzari izugarritzko kaltea egiñez. Bigarren, era ortan, lengo erara egaluzea amuz arra-patzen jarraitzenduten arrantzaleek beño askoz eta askoz geiago ja-sotzen dutelako.

Barkatu eidazu irakurle, onako azalpen labur au: Euskalerrian, it-xas ertzeko jendeek, eta arrantza-leek beraiek, erdaldunek «bonito» esatendioten arraiari «egaluzea» esan diote beti, eta erdaldunek «ci-marron» esaten diotenari, «egamotza». «Atun» zentzu ziurrik ga-beko itza da: «Legorreko euskaldunok, egaluzeari ematen diogu izen ori. Gaztelerrikoek, ega-motzari, ost, zimarroiari. Itzul ne-din nere arira. «Bolantaz» arrapatu-tako egaluzea, amuz arrapatutakoa beño askoz txarragoa da. Baiña asko arrapatzen da ta, ajola gutxi arrantzale prantzesei. Apika uzten bait diete gañera zerarrapaturik emengo arrantzaleei! Gaiñera gai-ñera... egaluze ori Españi'ko kon-terba fabrikei ari dire saltzen prantzesei. Eta Españi'ko Jaurlaritzak ez du nardakeri ori eragozteko es-kuo beatz txikirik ere mobittu.

Ori guztia, bi kilometro t'erdiko «bolantek» egiten duten gaitzari dagokionez! Alagutuz, Alkarte Europarrak, emanik dauke neurri ortako «bolantak» erabilli al izeteko



baimena. Zergatik? Bere garaiean Españi'ko Jaurlaritza bere arran-tzaleen eskubideak babesteko gai izen ez zelako. Nai zun guztia lortu zun Frantzi'ko Jaurlaritzak!

Baña itxasoan gertatuko gaitzak izugarriki aundiagoak izen dire? Zergatik? Frantzi'ko arrantzaleek Alkarte Europarraren debekurik betetzen ez dutelako. Alkarte Eu-roparrak bi kilometro t'erdiz gorako «bolantak» zearo debekaturik utzi bait zituen! Frantzi'ko Jaurlaritzak ezagutzen du bere arrantzaleen zi-kinkeri ori, baña deus ez jakifahen itxurakegiten ditu.

Sei kilometroko «bolantekin» at-zemana izen da itxasoan ontzi frantziar bat. Argi egon da pekatua mundu guztiaren aurrean. Ez du Españi'ko Jaurlaritzak bere arran-tzaleen eskubideak babesteko ki-xazko gauzarik egin.

Sei kilometroko «bolantek» izu-garrizko gaitza egiten dute itxa-soan. Ta... Ogei ta bi kilometro-

koek? Orrelako «bolantekin» ibilli bait direprantzesak —eta agian oraindik ere dabilte—, Frantzi'ko Jaurlaritzak deus esateke! Ta? Ain marrulari izen oi diren Frantzi'ko ekologistak zergatik egon dire gaiztakeri onen aurrean ixillik? Ekologista oiek eta Españi'ko Jaurlaritza Frantzi'ko Jaurlaritza-ren esanera ote daude?

Madrid'en ez da itxasorik. Ez da arrantzalerik? Zergatik ez ditu. Ma-drid'ko jaurlaritzak Galizi'ko arran-tzaleen arazoak Galizi'ko Jaurlarit-zaren eskuetan eta arrantzale euskaldunen arazoak Gazteiz'ko Jaurlaritzaren eskuetan uzten?

Izugarriak bait dire gure arran-tzaleen galerak. Azkeneko ikerketa edo estadistika 1.993'koa da. 9.154 tonelada egaluze saldu zu-ten frantziarrek Españi'n. Frantzi'k irabazi eta Españi'k galdu zun di-ruaren balioa: 2.170 milloi peztu.

Latiegi'tar Bixente

Nafarroako jaialdiak

Nafarroako Gobernuko Kultura Erakundeak antolatutako Jaial-diak sekulako arrakasta ukan dute Elizondon. Yoan den abus-tuko seiean izan ginuen lehenbi-ziko kantaldia Kiko Veneno kan-tariak emanik. Mundu bat bildu zen, sarrera guziak saldurik eta kanpoan hainbertze yende geldi-turik aterbean lekuri ez zelakotz. Bigarren ekitaldia Karmen Larun-be dantzariak izan ziren. «Tango berri» eta «boleroak» aurkeztu zuen. Karmen Larunbe nafartarra da eta Madrilen bizi dena. Dan-tzaldi au abuztuaren 12-an izan zen atseko 10-etan.

Atzo 10-etan, Maria del Mar Bonet kantaria, Mediterranioko Kulturaren kantaririk ezagun eta hoberenetakoa kantatu zuen. Hor erakutsi genituen, Mallorka-tar, Kataluniar, Andaluzitar, Ara-biar eta Grekoko erritmo eta doi-nuak, bere nortasuna erakutsirik.

Abuztuaren 19-an (ostirala) Jose Antonio eta español Bale-tak. Dantzari ospetsua, Espainia-ko Ballet Nazionalan hobere-netakoa eta mundu guzian ezaguna. Dantzari bezala guzien gañekoa. Lan aunitzen artean badu orai berriki egina 1992-ean, Koreografia «La Ha-banera» «Carmen» operarena. Ikuskizun hau 19-an atseko 10-etan.

Orain aipa dezadan denen ga-ñetik euskaldun Pastoral Zube-rotarrek eskeinia. Ikuskizun hau Abuztuaren 20-ean atsaldeko 8-etan emanen diote hasmenta. Bere izenburua PASTORAL «SAN MIKEL GARIKOITZ».

Hemen agertuko dut Pastarola huni buruz Egitarauaren orrietan dakarrena.

«Zuberoako Pastoral Euskal Herrian gorde den Herri Antzerki motarik zaharrenetakoa dugu, antziñako Kondairetako heroe ta



J. A. Goñi

Maria del Mar Bonet.

pertsonaia bibliko eta mitikoen bizitza, Erdi Aroko Santu eta mis-terioak eszenaratzeko sortua. Orain dela urte batzuk gaur egu-neko Euskal Herriko pertsonaien historia ere antzesten hasi zen. Zuberoako herriak gaur arte gor-de ditu antzerki mota zahar eta berezi hau, herritar gehienek par-te hartuz». Poesia: Dena dago bertsotan idatzia.

Kantua: Bertso guziak banaka kantatzen dira eta gainera koru bat dago, aldian behin azaltzen dena.

Dantza: «Satan» eta Zuberoko dantzetako pausoak dantzatzen dituzte.

Pastoralaren egilea, Junes Ca-senave Harigile Yauna dugu. Zo-riolak!

Musika: Orkestra batek «Irtee-ra» bakoitza markatzen du. Iku-skizun gehiago ere badira Abuz-tuaren 26 eta 27-an. Antzerkia Katalandarrek eskeinia. Bi an-tzerki hoiekin emanen zaio amaiera Nafarroako Jaialdieri.

M. Izeta

Juan Jose Ekisoain euskalzale argia

Gizon gaztea dugu Juan Jose Ekisoain, Iruñese euskalzale benetakoa. Nafarroa'ko Jaurlarit-zan «EUSKARA SAILAN» eziketa ekintzan buru dago. Nafar eus-kalzale batentzat lanazoragarria.

Lengo batean alkarrizketa eu-kitzeko aukera eman zidan; eran-tzunak berriz guztiz argiak jaso nituen. Langille amorratua dugu. Ikastetxe Publikoetan erdiko ate-tik euskara sartzea dela egin dun lanik ederrena, aitortzen zidan. Ortarako Napar Jaurlaritzak, 1988'garren urtean artuzuen era-baki nagusia, baita lanean jarri 1991'garren urtean. Etorkizunari buruz, euskara goi maillan ikusi nai luke, batezere Ikastetxe Na-gusian ondo ezarria.

Jaurlaritzaren lanik onena, euskara agintarien lanerakunde-tan, goitik beraño sartzea dela, aipatzen du. Nafarroa'n zear, euskarari buruz egin dan lanik onena, ikastolak sortzea derit-zai. Egiz ikastolak iriki diote euskarari aurrera ateratzeko bi-dea.

Euskararen indarra, gurasoen naian eta zaletasunean ikusten du. Oraindik aurtan Iruña'n ikas-toletako ikasleak eundikamasei asi dire. Orrexek dena erratan du. Euskarari arretaona ematen diote gaur Nafarroa'n. Euskarari ere aunitz laguntzen omen dio Alli Lendakariaren zaletasunak. UPN alderdian aunitzek euskarari agertzen dioten maitasuna, gaur-ko aldaketa aundiaren ezaugarria

da. Nor dugu Juan Jose Eki-soain? Iruña'n sortu zen 1954'garrenurtean. Aitona aman aldetik, Balero Larraburu, Sara-koazeukan, era bat euskalduna. Aitona aitan aldetik berriz, Juan Ekisoain, Elomendi mendean sortu zen; euskaraz ba zekin.

Amasei urtekin gaueskolan Iruña'n asi zen euskara ikasten. Gero Diputazioara Xole Erbiti'k antolatzen zituen ikasketarajoan zen. Ulzama'n ere egiten zituen ariketak. Deusto'n Izkuntz Ikas-tetxean iru urtez ikasketak eginta txartela edo trebetasunaren agi-ria lortu zuen. Bere Bilogi Jakin-tzan goimallako ikasketak egiñak ditu Iruña'n OPUS'en Ikastetxe Nagusian. Orain doktoradua lor-tudu; Huarte-Arakil'en arkitutako MASKORDUN (Molusko) bere-zi bategaz mintzo da. Lanaren laburpen bat euskaraz argitarat-zeko asmotan dabil. Iruña'ko INSTITUTOAN egiten zuen lana irakasle bezala. Ordizia'n lau urte egin zituen Institutoko zuzendari bezala. Iruña'n EZIKETAREN Ekintzan Euskara sailan, buru ta-zuzendari bezala 1988'garren ur-tean asi zen lanean, gaurarte.

Euskara Saillan amar laguntza-ile dauzka, oyetik bederatziz Nafa-rak. Bi zatitan dauka banatua lana; bat irakasle berriak sortzeko irakaskitzekin, bertzea euskaraz irakasleak berritzeko (BIRZIKLA-JEA). Azkeneko amar urte auetan bortzeun irakasle etorri zaizkie.

Latxaga

Berri ona

Moralak agintzen du

«Ogi onetatik jaten duenak betiko bizia izango du» (Jn.6,51-58)

GURE artean morala da nagusi; baiña jokabi-deekin neurtzen den morala. Pentsatzen duzuna eta egiten duzuna bat etorri bear luteke moral orren arabera. Jokabideak ikusirik, be-raz, badakigu nor den ona eta nor den gaiztoa.

Elizaren irakaskizuna ere ori izan da, eta da. Joka-bideak izan dira eta dira neurtu bear direnak. Judo-tarrek ere beste orrenbeste egiten zuten. Ez ote dugu, beraz, judutarren burua?

Moral kutsuko jokabideek gure ziurtasuna edo seguridadea billatzera bideratzen gaituzte. Taldeak, agintariak, nagusiak edo zuzendariak erratan duena bete ezkeri salbazioa iritsi dugula pentsatzen dugu.

Gure kristau bizitzak moral pisu aundia darama bizkarrean. Orregatik guztia kontrolatu, neurtu, ziur-tatu, ikutu, ikusi... nai izaten dugu. Eta fedea ere zerbait konprobatu bear duguna dela pentsatzen dugu. Orrela jokatzu ez dugu egiazko askatasunik lortuko, ez gera aske edo libre iñoiz izango. Eta gizakiaren xederik nagusia aian zuzen, aske izatea da.

Orregatik kristau askorentzat naikoa da mezatara joatea, meza zer den eta zer egiten den jakitea asko ajola ez zaielarik. Legea betetzea da kuestioa.

Judutarrek ez zuten ulertzen nola Jesus-ek bere-aragia eman zezaien. Itza irensten denean espiritua

ez da ulertzen. Jesus-ek, berriz, espiritua du gogoko eta ez ainbat itza. Gure pentsamoldea aldatzen ez den bitartean Euskaristia ulertu gabe eta bizi gabe jarraituko dugu.

Jesus-i entzuten zioten judutar aientzat eziñezkoa zen gizon arek erratan zuena. Jesus-ek ez zien Ari sinesteko erratan bakarrik, Areakin bat egiteko baizik. Ori, ordea, zailla zen. Guri ere zailla ez al zaigu gertatzen?

Are geiago oraindik, Jesus-ek onoko au erran nai digu:

Eriotzarekin eta Piztuerarekin Ark lortuko duena (betiko bizitza, alegia) guk ere lortuko dugula Ari sinesten baldin badiogu.

Jaingoak duen bizitzaz gozatzeko aukera eman digu Jesus-ek. Izan ere Jesus zertara etorri zen guri bizitza ematera baiño? Jesus ez zen Jaingoari buruz dotriña eta irakaskizun aundiak ematera etorri, ez zen jokabide batzuk guri erakustera etorri... Aren bizitza izan genezan etorri zan guregana. Beraz, Euskaristia egiten dugun bakoitzean bizitza orren billaketan murgiltzea da. Guk geure indarrez eta aalmenez lor dezakeguna baiño zerbait geiago nai izatea da meza egitea.

Artzalluz'tar Joxemari